

Legezko berdintasunerako bidean

Homosexualitatearen askapenerako mugimenduen borrokaren baitan, garrantzi handia izan du eta dauka oraindik ere heterosexualei aitortzen zaizkien Eskubide Zibilen eskaerak.

Nahiz eta kolektibo asko ezkontzaren kontra eta sexu eta maitasun harremanak instituzionalizatzearen aurka egon, hala nahi duten homosexual eta lesbianek ezkontzeko eta bikoteen legezko eskubideak lortzeko eskubidea izan behar dutela penstutzen dute gehienek.

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ERRESOLUZIOA Alde horretatik, aurrerakada nabaria izan da joan den otsailaren 8an Europako Parlamentuak onartutako erresoluzioa. Claudia Roth eurodiputatu berdearen ekimenez, Europako Batasuneko kide diren estatu guztiei aukera sexualagatik egiten diren diskriminazio guztiak bertan behera uzteko eskaera egin die legebiltzarrek.

Aholku zehatzak ere eman ditu: homosexual eta lesbianen kontrako jazarpena bukatzea, aukera sexualari buruzko datuen metaketa etetea, zuzenbideko arlo guztietan jasotzen diren diskriminazioak bertan behera lagatzea, bikote homosexualen eskubideak heterosexualenekin parekatzea eta, azkenik, homosexual eta lesbianen guraso izateko eta adopzioarako eskubidea aitortzea. Erresoluzioak, ordea, ez du lege mailarik, eta Estatuek muzin egin diezaioke gomenioak betetzeari.

Heterosexualen Eskubide Zibil berak izatea aspaldiko aldarrikapena da gay eta lesbianen mugimenduan. Joan den otsailean Europako Legebiltzarrek homosexualen eskubideak parekatzea aholkatuz onartutako erresoluzioaren ondoren, indartu egin da gaia. Hasi dira ondorioak ikuten: hainbat udalengan sortutako erregistroak dira adibide.



Eskubide Zibilak etengabeko eskaera dira gay eta lesbianen mugimenduan.

RAMIREZ

Eztabaida mugimenduan

■ Europako Legebiltzarra onartutako erresoluzioaren ondoren, indartu egin dira gay eta lesbianen mugimenduan Eskubide Zibilen inguruko debata eta aldarrikapenak. Hegoaldean, lehendabiziko aldiz elkarrekin biltzen hasi dira gay eta lesbiana taldeak: Eskubide Zibilen inguruan irizpideak bateratzea dute helburu. Besteak beste, Eusko Legebiltzarri, Nafarroako Parlamentuari, udalei eta oro har

iritzi publikoari zenbait eskabide aurkeztea aztertu dute.

Koordinakunde honetan, honako taldeok ari dira biltzen: Arabako Lesbianen Asanblada (ALA), Nafarroako Lumatza Lesbianen Taldea, Gipuzkoako Lesbiana Feministen Kolektiboa, Tuterako Talde Gay eta Lesbiana, Agerian Lesbianen Taldea, Bizkaiko Lesbiana Feministen Kolektiboa, EHGAM eta Arabako COGAL.

GASTEIZKO UDAL ERREGISTROA

Euskal Herrian Gasteizko Udala izan zen Europatik botatako enbidoa jaso zuen lehenengo erakundea. Otsailaren 28an, Jose Angel Cuerda alkateak Elkarketa Zibilen Udal Erregistroa sortu zuen dekretuz. Erregistro horretan hala nahi duten bikote guztiak inskribatu ahal dira, berdin heterosexualak zein sexu berekoak. Ondorioz, Gasteizko udalaren eremu juridiko administratiboan, ezkontutako bikoteen kontsiderazio bera izango dute egiteko bikoteek. Joan den astean Donostiako Udalak zabaldu zuen antzerako erregistroa.

Iragan hilaren 20an, berriz, Espainiako Gizarte Gaietarako Ministerioa egiteko bikoteen eskubideak arautuko dituen lege proiektua lantzen ari dela iragarri zuen Cristina Alberdi ministroak. Udazkenerako prest egotekoa den legearen arabera, egiteko bikoteek—heterosexualek zein gay eta lesbianenek—ezkontutako bezakoxe legezko eskubideak izango dituzte. Arazo bat geratuko da zintzilik: legeak hitzez ez die homosexual bikoteei hurrak adoptatzeko eskubiderik aitortuko, Cristina Alberdi ministroaren arabera. «norbanako gisa egin dezakete».

APDUA

TABERNA
 KARDABERAS, 7 HERNANI

Egunkaria
 EUSKALDUNON
IRAGARKIAK

 (943) 469022

ERRIOGUARDA
 "E N E A"
 Iturriga kalea, 10 • Tf.: (943) 33 02 91
 20120 HERNANI

La Medina
 Produktu naturalen salmenta
 Navarrerria kalea, 2
 Tfnoa: 21 32 92
 IRUÑEA

LANBROA
 kafetegia edaritegia

 konstituzio plaza 5
 tf.: 42 19 58
 DONOSTIA

OIARTZUNGO UDALA

 "Oiartzungo Udaletik ere, bereizkuntzarik gabeko gizarte baten alde."
 Tfnoa: 49 01 42 □ Faxa: 49 14 05

Iraxo
 LIBURUDENDA
 Narreziogintza. Literatura Klasikoa, liburu berriak.
 Enkarguzko liburuak.
 Eskol materiala.
 Fotokopiak.
 kale Nagusia 53
 Tf.: 55 06 96 HERNANI

TXU - KINDEN TABERNA

 S. Agustin 4 IRUÑEA

PINTXOAK eta BOKATAK

MESON de la NAVARRERIA
 en Irueñen, Nafarroa